

2015/05/12(e)ko saioa

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.

Eusko Jaurlaritzak espainiako beste Errege Lege-Dekretu baten aurkako helegitea jarriko du, enpleguko politika aktiboen eskumena zapaltzen duelako.

Gobernuak 40.000 euro inbertituko ditu zuzenbide arloko profesionalak Euskadin doako laguntza juridikoa eman dezaten prestatzeko.

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA X. LEG.

Milioi bat euro gazteentzako prestakuntza eta enplegua txandakatzen dituen HEZIBI programarentzat.

Jaurlaritzak bidea eman die Lanbideren kudeaketa planei.

Lanbideren eta Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren arteko hitzarmena izapidetze elektronikoari buruz.

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.

12,5 milioi Bergaran Lanbide Heziketako Institutuaren eraikin berria eraikitzeko.

6,55 milio euro unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako informatikarako.

181 milioi euro ikastetxe publikoetako jantokietarako.

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.

Gobernu Kontseiluak onartu du Ordunte Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, Natura 2000 sarearen baitan.

HERRI ADMINISTRAZIO ETA JUSTIZIA SAILA X. LEG.

Eusko Jaurlaritzak espainiako beste Errege Lege-Dekretu baten aurkako helegitea jarriko du, enpleguko politika aktiboen eskumena zapaltzen duelako.

Erabakia, bigarren aukerako mekanismoari, finantza-kargaren murrizketari eta gizarte arloko bestelako neurriei buruzko otsailaren 27ko 1/2015 Errege Lege Dekretuaren zenbait arauen aurka konstituziokontraktasun-errekurtsoa jartzeko baimena emateko.

LABURPENA

Espainiako Gobernuak gizarte-kuoten zenbait hobari abiarazi ditu berriz ere, baina Euskadin LANBIDEri dagozkio eskumen horiek, 2010ean transferitu zitzaizkionetik.

Gainera, alor material eta finantzarioan, Estatuak bere Enplegu Zerbitzu Publikoaren bitartez kudeatzen ditu bere neurriak: hala, nahita, bete gabe uzten du laneko legeria betearazteko eskumenen eskualdatzea; zehazkiago, enplegua sortzera bideratutako politika aktiboei dagokiena.

Eusko Jaurlaritzak nekea adierazi du, Espainiako gobernuak behin eta berriz urratzen duelako eskumen hori: legegintzaldi honetan, laugarren aldia da honezkero.

Gobernu-kontseiluak konstituzio-kontraktasuneko helegitea jartzea onartu du gaur, otsailaren 27ko 1/2015 Errege Lege-Dekretuaren, bigarren aukeraren mekanismoari, karga finantzarioaren murrizketari eta beste neurri sozial batzuei buruzkoaren, zenbait artikuluko direla eta. Zehazki, Eusko Jaurlaritzak 8. artikuluko 9. eta 11. paragrafoen, 9. artikulukoaren eta azken xedapenetako lehenaren aurka jarriko du helegitea. Izan ere, artikuluko horietan jaso dira Gazte Bermea Sistema Nazionalean izena emanda duten pertsonak kontratatzeako hobariak, bai eta langile autonomoek familia eta lana bateratzeko pizgarriak ere.

Eusko Jaurlaritzak salatu du Espainiako gobernuak bi muga gainditu dituela berriz:

Alde batetik, legez kanpo bereganatu ditu 2010 urtean Euskadiri transferitutako enpleguko politika aktiboen eskumenak (*).

Bestaldetik, neurri horien finantzazioa Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrekontuetan sartu duenez, ez du errespetatu sistema ekonomikoan adostutako politika aktiboen eskualdatzea, hain zuzen, Euskadiko Autonomia Erkidegoari eskualdatu baitzaizkio halakoak.

Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak ohartarazi du errege lege-dekretu horrek barruan hartzen dituen Gizarte Segurantzako enpresa-kuotek ez diotela eragiten ez Gizarte Segurantzaren ondareari, ez haren kutxa bakarrari. Aitzitik, enplegu egonkorra sortzeko eta, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko, familia eta lana bateratzeko ekintzak dira, eta kontu horiek enplegu-politika aktiboko eskumenei dagozkie, argi eta garbi.

Illo horretatik, Eusko Jaurlaritzak salatu du Espainiako gobernuak hobari horiek Gizarte Segurantzaren ekonomia-erregimenari dagozkiola sinestarazi nahi duela. Nahiz eta ondo jakin enplegu-politika aktiboak direla eta, beraz, Euskadiko Autonomia Erkidegoa dela eskudun, Espainiako Gobernuak Estatuko Enplegu

Zerbitzu Publikoari egotzi dizkio halakoak finantzatzea, kontrolatzea eta berrikustea.

Bigarrenik, eta aurrekoaren eraginez, Espainiako Gobernuak bere aurrekontuetan aurreikusi ditu neurri horiei erantzuteko baliabide ekonomikoak; hala, nahita alboratu du aurrekontuen araubidea, EAERI egozten dizkiona bere lurraldean aplikatzekoak diren hobarien ardura finantzarioa, eskualdatzeen dekretuan taxutu den moduan.

ESKUMENAK BEHIN ETA BERRIZ URRATZEA

Eusko Jaurlaritzak enplegu-politika aktiboen arloko eskumena behin eta berriz urratzen dutela salatu du. Izan ere, legegintzaldi honetan konstituzio-kontrakotasuneko lau helegite jarri ditu arrazoi berengatik:

16/2014 Errege Lege-Dekretua, abenduaren 19koa, enplegua suspertzeko programa arautzen duena. (Enplegua suspertzeko programa)

18/2014 Legea, urriaren 15koa, Hazkuntzaren, lehiakortasunaren eta eraginkortasunaren aldeko premiazko neurriak onartzekoa (ez ikasten ez lanean ari ez diren gazteentzako laguntzak).

1/2013 Errege Lege-dekretua, urtarrilaren 25koa, langabeziagatiko prestazioa agortzen zaien pertsonen lanbide-prestakuntza eguneratzeko programa luzatzen duena. 6199/2013 konstituzio-kontrakotasuneko helegitea. (Prepara Planaren luzapena), bai eta ekainaren 29ko 2/2012 Legea eta abenduaren 27ko 17/2012 Legea ere, non kreditua erreserbatzen baita SPEEek zuzenean kudeatzeko Prepara Planeko funtsak.

ALDEBIKO BATZORDEA

Errekurtsoa jarri aurretik, Eusko Jaurlaritzak bere ustez eskumenak inbaditzen dituzten artikulua sei hilabetez Euskadiren eta Estatuaren arteko Aldebiko Batzordean negoziatzea proposatuko du, Konstituzio Auzitegiaren Lege Organikoaren 33.2 artikuluan xedatutako moduan.

1441/2010 Errege Dekretua, azaroaren 5koa, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak burutzen dituen lan-arloko legeria betearazteko eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzekoa. Transferentzien Batzorde Mistoak 2010eko urriaren 28an hartutako erabakia.

B2b) paragrafoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari dagozkio enplegua sustatzeko eta babesteko eginkizun guztiak, bai eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak, laneko legerian ezarritako enplegu-politika aktiboko programen inguruan, Euskal Autonomia Erkidegoan egiten dituenak eta honako hauei buruzkoak ere:

b) Kontratatorako pizgarriak, gizarte-kuoten hobarien erregimenaren bitartez, Estatuko legerian aurreikusitakoari jarraiki, Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietako langileei dagokienez, bai eta EAeko langile autonomoei dagokienez ere. Gizarte Segurantzako sistemaren printzipioak aplikatuta, Euskal Autonomia Erkidegoak Gizarte Segurantzari konpentsatuko dizkio hobari horiek, akordio honen G).3.b) atalaren arabera.

Gobernuak 40.000 euro inbertituko ditu zuzenbide arloko profesionalak Euskadin doako laguntza juridikoa eman dezaten prestatzeko.

Erabakia, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako abokatu-elkargoei diru-laguntza emateko dena. Diru-laguntzaren helburua da elkargokideak doako laguntza juridikoko zerbitzuak eskain ditzaten prestatu eta espezializatzeko gastuak finantzatzea.

LABURPENA

Diru-laguntzak hiru lurralde historikoetako abokatu elkargoen bitartez kudeatuko dira eta doako zerbitzu horren kalitatea hobetzen lagunduko dute.

2015ean, Eusko Jaurlaritzak 14,5 milioi eurekin finantzatuko du kalteberatasun-egoera berezian dauden pertsonak Euskadin Justizia Administrazioa dohainik eskuratu ahal izateko aukera.

Gobernu-kontseiluak onartu du gaur Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako abokatu-elkargoei bideratutako zuzeneko diru-laguntza, 40.000 eurokoa, doako laguntza juridikoa ematen duten pertsonak prestatzeko eta espezializatzeko aurten:

Arabako Abokatu Elkargoa	8.200 euro
Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkuna	19.200 euro
Gipuzkoako Abokatu Elkargoa	12.600 euro
GUZTIRA	40.000 euro

Laguntzon bitartez, Eusko Jaurlaritzak Euskadin doako laguntza juridikoaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzen laguntzen du, bai eta Jaurlaritzak berak kalteberatasun-egoera berezian dauden taldeei arreta emateko finantzatzen duen zerbitzu publiko hori sendotzen ere.

DOAKO JUSTIZIA 2015

Eusko Jaurlaritzak 14,5 milioi euro inbertituko ditu aurten Euskadin Doako Justizia finantzatzeko. Zenbateko horrekin, abokatu eta prokuradore elkargo profesionalen ekintza guztiak finantzatuko dira:

Baliabide ekonomikorik ez duten eta ondorioz Doako Justizia jasotzeko eskubidea duten inputatu, atxilotu eta espetxeratu guztiei zuzenbide-arreta ematekoak.

Arauetan jasotako arrazoi bereziengatik (hala nola genero-indarkeria, sexu-erasoak, etxe barruko indarkeria, terrorismoaren biktimak, adingabeak, atzerritartasuna, tratu txar edo abusuaren biktima izan diren ezgaitu psikikoak...) **babes bereziko talde** bateko kide diren eta ondorioz automatikoki Doako Justizia jasotzeko eskubidea duten inputatu, atxilotu eta espetxeratu guztiei laguntza juridikoa ematekoak.

Orientazio Juridikoko Zerbitzuen (OJZ) funtzionamendu-gastuak finantzatzekoak; izan ere, zerbitzu horiek doako aholkularitza eta orientazioa eskaintzen dituzte, prozesu judizialaren aurretik, Euskadiko

espetxe eta justizia-jauregietan.

Gobernuaren zenbatespenen arabera, aurten:

18.960 pertsonari eskainiko dio Doako Laguntza Juridikoa.

Horietatik, 4.200 genero-indarkeriaren edo sexu-erasoen biktima izandako emakumeak izango dira.

Gainera, beste 5.000 lege-laguntza gauzatuko ditu Euskadiko espetxeetan.

ENPLEGU ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA X. LEG.

Milioi bat euro gazteentzako prestakuntza eta enplegua txandakatzen dituen HEZIBI programarentzat.

LABURPENA

Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak hala proposaturik, Gobernu Kontseiluak milioi bat euroko aurrekontu-saila onartu du gazteentzako prestakuntza eta enplegua txandakatzen dituen HEZIBI programa finantzatzeko.

Enplegu eta Hezkuntza sailek lanbide-heziketa suspertzeko elkarrekin garatutako programa bat da, enpleguarekin txandakatuta LHko titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat lortzeko, prestakuntza eta ikaskuntzako modalitatearen bidez.

Lanbide-heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzendutako programa, hain zuzen, enpresako lan-jarduera ordainduarekin txandakatua. 2014an, 375 gaztek ikasi zuten enplegua eta prestakuntza txandakatzen dituen Hezibi modalitatean.

Honako hauek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak: EAEn lan-zentroren bat duten enpresek, pertsona fisikoek eta pertsona juridikoek, bai eta Hezibi modalitatean enpleguarekin txandakatuta profesionaltasun-ziurtagiriak ematen dituzten Prestakuntza Zentroek ere.

Proiektuek, oro har, urtebeteko iraupena izaten dute, baina hiru urtera arte ere irits daitezke.

Jaurlaritzak bidea eman die Lanbideren kudeaketa planei.

Erabakia, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren 2013-2016 Plan Estrategikoari buruzko "2014ko Urteko Kudeaketa Planaren" eta "2015eko Urteko Kudeaketa Planaren" urteko egoeraren txostena ezagutzera ematen dituena.

LABURPENA

Gobernu-kontseiluak bidea eman dio Lanbideren 2015 urteko kudeaketa-planari, Legebiltzarrean aurkez dezan. Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburu Ángel Toñak, halaber, 2014 urteko kudeaketa-planaren egoera-txostena aurkeztu die gainerako gobernu-kideei.

Bi agiri horiek 2013-2016 aldirako Plan Estrategikotik eratorritakoak dira eta Lanbideren administrazio-kontseiluak iragan martxoaren erdialdera onartu zituen. Bietan da pertsona helburu, batez ere enplegurik ez duena eta gizarteratzeko edo laneratzeko zailtasun bereziak dituena, eta bietan daude jasota Lanbidek lan-gaikuntzan, enplegurako prestakuntzan eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitza-prestazio osagarriaren kudeaketan egindako jarduerak eta hartutako neurriak.

Lanbideren 2015eko jardueren programazioak honakoei emango die garrantzia: **berrikuntza**, pertsonen eta enpresei balioa ematen dieten gizarte- eta enplegu-politiken gaineko proiektuen bitartez; **gizarte-kohesioa**, laguntzen eta zailtasun berezia duten taldeen laneratzearen kudeaketa eraginkorragoa eginez; **orientazioa eta gertutasuna**, pertsonak eta enpresak Lanbideren jardueraren erdigune bihurtuta gero eta zerbitzu hurbilagoak eta pertsonalizatuagoak eskaintzeko; lan-bitartekaritzaren eta prestazio publikoen kudeaketaren **eraginkortasuna handitzea**; eta azkenik, jarduera ekonomikoan, enpleguan, prestakuntzan eta gizarteratzean jarduten duten hainbat eragile publiko eta pribaturekin **parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea**, adostasuna eta hitzarmenak oinarri hartuta betiere.

Lanbideren eta Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren arteko hitzarmena izapidetze elektronikokoari buruz.

Akordioa, Estatutuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak kolaborazio-hitzarmena sinatzeko baimena ematekoa, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratuak elektronikoki izapidetu ahal izateko aurrerantzean.

LABURPENA

Gobernu-kontseiluak Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren (SEPE) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez) arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko baimena eman du, prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuen izapideak bide elektronikoen bidez egiteko.

Azaroaren 8ko 1529/2012 Errege Dekretuak ezartzen du, kontratu horietako prestakuntza-jarduera enpresaren lantokia dagoen Enplegurako Zerbitzu Publikoak (Euskadiren kasuan, Lanbidek) baimendu

behar duela aurrez eta prestakuntza-jarduerarako baimena ematen den egunetik kontatzen hasi eta hamar eguneko epean elektronikoki jakinarazi behar dela.

Bi administrazioek egiten duten kudeaketan teknologia berriak erabiltzen badituzte, sistemaren efikazian nabarituko da eta, horrez gain, administrazio-kargak eta -kostuak jaitsiko dira.

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA X. LEG.

12,5 milioi Bergaran Lanbide Heziketako Institutuaren eraikin berria eraikitzeko.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako aurrekontua duen kontratua baimentzen duena, Bergarako IEFPS Miguel Altuna GLHBI Lanbide-Heziketako Ikastetxe Berria (Gipuzkoa) eraikitzeko obrak finantzatzeko.

LABURPENA

Gobernu kontseiluak gaurko bileran Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren proposamenez ,12.450.594,84 euroko gastu-baimena onartu du, Bergarako Migel Altuna Lanbide Heziketa Institutuzako eraikin berria egiteko.

Eraikin berria Bergarako San Martin auzunean kokatukoda, eta egun Bergarako erdigunean dagoena ordezkatu du. Bi eraikin izango dira gunen berria: bata tailerrak hartuko dituen eraikina (Elektrizitate eta Mekanika zikloak), eta bestea ikasgelak, zuzendaritza eta Administrazio Zikloa hartuko dituen.

Eraikitako 9.719, 42 m izango ditu guztira Lanbide Heziketako Migel Altuna Institutu berriak, eta besteak beste, instalazio hauek metro koadro horietan: Elektrizitate Ziklorako 7 tailer-ikasgela (sistema automatikoen tailerrak, instalazio elektrikoak, elektrizitate tailerrak, azpiegitura tailerra, sistema elektrikoena eta ikasgela teknikoak), Mekanika Ziklorako 12 tailer (automatismoak, mekanizatuenak, soldaketa eta galdaragintza, CNC zenbaki kontrola, eraikin metalikoak, eta entsegu laborategiak), Administrazio Ziklorako 8 tailer-ikasgela (informatika gelak, administrazio tailerrak, kudeaketa gelak), erabilera anitzeko 12 ikasgela eta liburutegia.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak gehienez ere 15 eguneko epean argitaratuko du eraikin berriaren lanen lizitazio iragarkia.

6,55 milio euro unibertsitatez kanpoko ikastetxeetako informatikarako.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastu baten kontratua baimentzeko, Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeen eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen sistema informatikoen mantentze eta euskarria kudeatzeko.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran 6,55 milioi euroko gastu-baimena onartu du, Euskadiko Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko ikastetxeen eta irakaskuntzari laguntzeko zerbitzuen sistema informatikoen mantentze eta euskarrien kudeaketarako kontratua baimentzeko.

181 milioi euro ikastetxe publikoetako jantokietarako.

Erabakia, 5.000.000 eurotik gorako gastu baten kontratua baimentzeko, kudeaketa zuzeneko jantokia duten Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpeko ikastetxe publikoei prestatutako bazkariak, lehengaiak eta antzeko zerbitzuak ematearen kontzeptuan, 2015/16 eta 2016/17 ikasturterako.

LABURPENA

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran bazkari prestatuetarako, lehengaietarako eta hornidura horren moduko zerbitzuetarako 181 milioi euroko gastu-baimena onartu du, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren menpe dauden kudeaketa zuzeneko jantokiak dituzten ikastetxe publikoetarako.

2015/2016 eta 2016/2017 ikasturtetan euren jantokiak zuzenean kudeatuko dituzten ikastetxe publikoak 500 inguru izango dira.

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA X. LEG.

Gobernu Kontseiluak onartu du Ordunte Kontserbazio Bereziko Eremu izendatzea, Natura 2000 sarearen baitan.

Dekretua, Ordunte (ES2130002) Kontserbazio Bereziko Eremua izendatzekoa.

LABURPENA

Ordunte esparruak ingurumena zaintzeko neurri bereziak ditu gaurtik aurrera, zeren aurrerantzean Kontserbazio Bereziko Eremutzat hartuko baita, Europako naturgune babestuen 2000 Natura sarearen baitan. KBEaren kalifikazioa Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak jakinarazi du gaur.

"Ordunte KBE izendatzeko arrazoia da europar Zuzentzaruetako zerrendetan sartutako espezie eta habitat batzuk dituela eta Euskadin horiek babestu behar ditugula, Europar Batasuneko kideak garelako", adierazi du Ana Oregi Ingurumen eta Lurralde Politika sailburuak.

Ordunteko Mendiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren mendebaldeko muturrean daude kokatuta. 10 kilometroko luzera gainditzen duen gailur-lerro bat da, eta mendien altuerak 1.000 metrotik gorakoak dira eta nahiko berdintsuak elkarren artean. Ordunteko goi-eremuetan, azpimarratzekoa da larre, txilardi eta otadiz osatutako paisaia. Haranetarantz jaitsiz, mendi-hegal malkartsuen gainean eta erreka gehienen burualdeak okupatuz, pagadiak agertzen dira.

Mendi-hegalen beheko partean, ugariak dira baso-sailak, landekin eta bertan sakabanatuta agertzen diren haritz-unadekin tartekatuta. Gune batzuetan sortzen diren baldintza bereziei esker, turba izaerako hezegune txiki baina garrantzitsuak daude. Hezegune txiki horiek flora interesgarria eta urlehortarren komunitate garrantzitsu bat hartzen dituzte. Mendez mende, artzaintza estentsiboa izan da mendi horietan egon den erabilera nagusia.

Ana Oregiren arabera, "gune horren isolamendu mailak eta eremu batzuen kontserbazio egoera onak fauna interesgarria hartzea ahalbidetzen dute. Besteak beste, espezie hauek azpimarratu daitezke: sai arrea, belatz handia, sai zuria, hontz handia edo okil beltza; badira, halaber, ornogabeen espezie batzuk, hala nola Rosalia alpina, Euphydras aurinia edo Callimorpha quadripunctaria. Flora interesgarriari dagokionez, beste batzuen artean azpimarratzekoa da espezie hauen presentzia: Eriophorum vaginatum, Bartsia alpina, Gentiana lutea, Menyanthes trifoliata, Trichomanes speciosum edo Woodwardia radicans. Halaber, EBk interesgarritzat hartzen dituen 13 habitat mota daude; horien artean, lauk lehentasunezko izaera dute".

Ordunte KBE izendatzeak berekin dakar Bizkaiko Foru Aldundiak landutako kontserbazio-arau batzuen aplikazioa.

Zer da KBE

Kontserbazio Bereziko Eremua (KBE) ingurumen-balio garrantzitsuak dituen eta biodibertsitatearen galera eragozteko babestu behar den eremu bat da. KBEen multzoak Europako Naturguneen Sare bat osatzen du, "2000 Natura" izenekoa. KBEen Sare hori tresna nagusitzat jotzen da biodibertsitatea Europa osoan pairatzen ari den galera gero eta handiagoa gelditzeko.

Euskadin, 52 KBE daude 2000 Natura Sarean, eta horiei Hegaztien Babes Bereziko 6 Eremu gehitu behar zaizkie. Eremu horiek ibaiak eta mendi-aldeak hartzen dituzte barne, eta baita lautadak eta kostaldeko eremuak ere. Gaur egun, Euskadiko azaleraren % 23 2000 Natura Sarean dago sartuta.